

HERNANIK kronika

2003 urtea
Urtarrilak 24
Ostirala
Alea: 676
www.hkronika.com



Ikastetxeetako ordezkariak, Kirol Elkarteetakoak eta Kirol Patronatukoak, asteazkenean akordioa sinatzen.

Kirol klubak ere Eskola Kirolaren antolaketan sartuko dira ikastetxe eta Patronatuarekin batera, hiru aldeek lortutako akordioari esker

■ Ikastetxeek, Kirol Patronatuak eta klubek aste honetan sinatu dute elkarlanerako akordioa ■ Lortu nahi dutena da eskola Kirola eta kirol kluben helburuak uztartu eta kirol programazio berean biltzea.

IKAESTETXEEK, Kirol Patronatuak eta Hernaniko Kirol Elkarteko elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten asteazkenean klubek eskola kirolean parte hartze zuzena izateko. Izatez, Eskola Kirola Diputazioa, Kirol Patronatua eta ikaste-txeen arteko akordioaren fruitua da. Baino, klubek ere beren lagunza eman dute.

Manolo Aierbe Eskola Kirola koordinatzen duenaren esanetan, beharrezkoa ikusten zen beste pauso bat

ematea eta Hernaniko klubak Eskola Kirolaren antolakuntzaren barruan sartzea. Eta horixe da aste honetan sinatu duten hitzarmenak dioena. Klubek zuzen-zuzeigen parte hartuko dute, gazttxoek urte osoan egingo duten kirol programazioan.

Hitzarmena sinatzeko ekitaldia Kirol Patronatuko bullegoan egin zen eta erakunde bakoitzeko buruak bildu ziren: Rikardo Ramos Klub Deportivo Hernaniko lehendakaria, Eusebio Lizarazu Hernani Kirol Elkarteko arduraduna, eta Errugi Elkartearren izenean Rafa Larretxeak sinatu zuen, ekitaldira etortzerik izan ez bazuen ere. Ikastetxeen izenean sinatu zutenak, Felicidad Sacristan Inmaculada Ikastetxetik, Xabier Balderi Urumeatik, Elena Gorotxategi Elizatxotik eta Josune Aranburu Langiletitik. Patronatuen izenean Eli Igarrizinegotzia eta Kirol Patronatuko burua izan zen.

karia, Eusebio Lizarazu Hernani Kirol Elkarteko arduraduna, eta Errugi Elkartearren izenean Rafa Larretxeak sinatu zuen, ekitaldira etortzerik izan ez bazuen ere. Ikastetxeen izenean sinatu zutenak, Felicidad Sacristan Inmaculada Ikastetxetik, Xabier Balderi Urumeatik, Elena Gorotxategi Elizatxotik eta Josune Aranburu Langiletitik. Patronatuen izenean Eli Igarrizinegotzia eta Kirol Patronatuko burua izan zen.

Helburuak uztartu

Manolo Aierberen hitzetan, akordio horren helburua da Eskola Kirolaren eta kluben helburuak uztartzera. Eskola Kirolak kluben parte hartze zuzena jasota aukera gehiago izango ditu. Bestetik, berri, gazttxoek aukera izango dute Hernanin egiten diren kiroi segida berezia emateko. Eskola Kirolak mugimendu haundia du Hernanin. Asteburuelo dira partiduak eta 1.000 ume inguru dabilta. □

Inauterietako konpartsa eta beste ekintzetaarako proposamenak Udaletxean

DATOZEN inauterietan konpartsa atera nahi duten taldeek edo beste ekintzaren bat proposatu nahi dutenek urtarilaren 29a baino lehen egin behar dute eskaera, Udaletxeko erregistroan, goizeko 13:00ak aurretik. Udalak diru kopuru bat ematen die konpartsei eta proposamena egiten duten taldeen artean banatuko da. Iaz 4 taldek atera zuten konpartsa. Egutegia oraindik erabat zehaztua ez badago ere, seguruenera konpartsak martxoaren 3an aterako dira, igandearekin. □

Drogen konposizioari buruz hitz egingo dute gaur Gazte Txokoan

GAZTE Txokoan drogen gaia ari dira lantzen urtarilean zehar. Gaur drogen konposizioari buruz eta drogen izenean hartzen direnei buruz hitz egingo du Floren Luki, Hegoak taldekoak. Hegoak taldeak drogak analizatzen ditu jendeak zer hartzen duen eta zein arrisku duen jakin dezan. Hitzaldia 18:30-ean da Gazte Txokoan. □

MENDIRIZ MENDI

Cauteretsera eskiatzerako datorren asteburuan

MENDIRIZ Mendi elkarreka Cauteretsera antolatu du biajea, bihar eta etzirako. Asmoa fondo eta alpinismo eskiatzea da. Irteera bihar egingo dute Atsegindigetik, goizeko 05:00etan. □



ADARRA

ETXE TRESNAK S.A.

Txirrita 11

Tel. 943 55 04 27

20120 HERNANI (Gipuzkoa)

Hernaniko Kronikak elkarritzetak egingo dizkie Udal Taldeei

■ 2002ko balorazioa egin eta aurrera begirako asmoen berri galdezko, elkarritzetak egingo dizkie Hernaniko Kronikak Udal talde politikoei. Biher PSE-EE taldeari egingo dio; eta datozen asteetan EA-EAJko Udal Taldeari eta Sozialista Abertzaleak Udal taldeari egingo dizkie, hurrenez hurren.

HORBEL jatetxea
Bokatak, pintxoak, rajoak, platerak, entsaladak, sandwichak, hanburgesak
Etxeraino eramango dizugu.
Eskatu!

Lizeaga kalea 4
Tel.: 943 33 33 95

URGASKA, S.L.
GAS INSTALAKUNTZA MATERIAL SALMENTA
K21
* ASISTENTZIA TEKNIKOA, GAS ETA BEROGINTZAN.
* GAS PROPANO, BUTANO ETA NATURALA: MANTENUA
Aristizabal 9 Behea
Tel: 943 33 37 40

AMAIK ARRAKINTZA ITZASIAK FRESKO ETA IZOZTUAK
FRESCO Y CRISTALIZADO
Kardaberaz 34
Tel. 943 55 07 52
943 55 22 11
20120 HERNANI

SAGARDO NATURALA
Hernaniko Sagardoa
tolare
OTSUA-ENEA
Osiñaga auzoa • Tel. 943 55 68 94 • HERNANI

OSKAR MATUTE IU-EB

"Ibarretxeren planak kontuan hartzeko puntuak ditu"

■ IU-EBko parlamentariak Biterin esan zuen, besteak beste, berak dakienagatik Ezker Abertzalea Udal Hauteskundeetan izango dela "eta hala izatea" desio duela.

HERNANIKO Ezker Batuak antolatuta Oskar Matute IU-EBko parlamentaria Biterin izan zen astezkenean, aktuallitate politikoari buruz hizketan. Matutek puntu asko tratatu zituen eta bukaeran debatea ere izan zen. Ibarretxeren planari buruz IU-EBko parlamentariak esan zuen kontuan hartzeko puntuak dituela eta gaurkoz, aurrera-bidea ekarri lezakeen bakarra dela. Baina, hala ere aitoritu zuen plan hori ez dela Ezker Batuak egingo lukeena, IU-EBk federalismoaren aldeko apustua egiten duelako.

Matutek ETAREN kontrako hitz gogorrak izan zituen. Bere esanetan, ETA sobran dago eta desagertu egin behar du. Gainera, esan zuen ETAK hor segitzean beste debate asko egin gabe edo bidean gelditzen direla. Adibide bezala jarri zuen *Prestigeroen* gertatu dena, eta horrez gain, azaldu zuen debate sozial asko argirk ikusi gabe



Oskar Matute eta Jexux Uzkudun asteazkeneko hitzaldian.

gelditzen direla.

PP eta PSE-EEko zinegotziengoa egora gogor salatuta, Batasunaren ilegalizazioari eta datozen Udal hauteskundeetako buruz ere aritu zen Matute. Be-re ustez, Batasunaren ilegalizazio prozesuak erakusten du Estatuak gabezi demokratikoa

duela, eta hiru botereen arteko banaketarik ez dagoela.

Aurrekontuen gainean nabarmendu zuen ezkerrerako joera eman diela IU-EBk.

Hitzaldi ondoren debatea izan zen IU-EBren lanari buruz eta Gobernuan egoteareen egokitasunaz. Biteriko hitzaldi gelela bete egin zen. □


■ PELOTA

Zabala eta Rekaldek jokatuko dute 2002ko Herri Txapelketetako Gipuzkoako finala, gaur Azpeitian

■ Errekondo-Portularume Usurbildarren kontra jokatuko dute ■ 21:45etan Frontoi Txikin.

GIPUZKOAN jokatu diren herri txapelketetako irabazleek txapelketa jokatu dute, Gipuzkoako Euskar Pelota Federazioak eta Ikerasberri pelota elkartek antolatuta, eta Diputazioak, Garak eta Forumek lagunduta. Finala gaur da Azpeitiko Frontoi Txikin, 21:45etan. Hernaniko Kronika eskupelota txapelketako bikote irabazlea (Zabala-Garmendia zen, baina Zabala-Rekaldek jokatuko dute) eta Usurbilgo Aitzagako txapelketako bikotea pasa dira finalera.

Datorren urtean zabalago
2002an, 8 herritako bikoteek hartu dute parte: Hernani, Usurbil, Anoeta, Azpeitia, Lazkao, Arrasate, Soraluze eta



Zabala Kronika txapelketan.

Loiola. 2003koan 16 herrietara zabaldu nahi dute txapelketa eta arau minimo

batzuk, materiala eta abar unifikatu ere bai. Herriek txapelketak orain arte bezala jokatuko dira eta 2 bikote oinek Gipuzkoako txapelketa jokatzeko aukera izango dute. Txapelketa horiek federatu gabeko pelotariantzat izango dira.

2003an eskuzko txapelketa ez ezik paleta gomako txapelketa ere egingo dute, hastera batean 8 herrietako bikote txapeldunekin. Bai eskuzko txapelketa eta bai paleta gomakoa mutantentzat dira eta neskentzako txapelketak egin eta potentziatzen 2004an hasteko da federazioa, pelota munduan emakumeen presenzia bultzatzeko plan integralaren barruan. □



Umeak eta monitorea igerilekuak.

Ur jolasak datorren igandean

■ Goizeko 10:30etatik 12:30etara izango dira.

UR jolasak egingo dituzte datorren igandean kirodegiko igerilekuak. Monitoreak eta uretako jokoa egongo dira, baina, gurasoekin edo bere kasa jolas egin nahi duten umeek ere izango dute aukera. Ur ludoteka bi astez behin ari

da antolatzen kirodegia, aurten izaten ari duen arrakasta haundiak ikusita.

Igandean goizeko 10:30etatik 12:30etara izango da eta igeri normal egiteko aukera ere izango du jendeak, zenbait kale libre egongo baitira. □

† JUANTXO ESNAL KASTRESANA

Asteazkenean hil zen, 42 urte zituela, elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapioa hartuta.

-Goian bego-

Haren emaztea: Malu Gastesi; semea: Jokin; gurasoak: Jose Mari eta Joxepi; ezkondu gurasoak: Jesus eta Bittori; anai-arrebak: Jeseba eta Mila, Patxi eta Leli, Peio eta Ana, Nekane eta Iñaki, Lurdes eta Patxi, Txomin eta Carmen, Txema eta Bego, Ainhoa eta Iñigo; Juan Cruz eta Gemma, Maritxu eta Fernando; osabaizek, iñobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.



Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arron etor zaitezela OSTIRALEAN, arratsaldeko ZAPPIETAN, JUAN BATAIZAILEAREN parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2003ko urtarrilaren 24an

Helbidea: Kardaberaz, 6-5. esk.

OHARRA: Gorputz beila Hernaniko Orbegozo Tanatorio berrian (kiroldegia ondoan) izango da, goizeko 10:00ak arte. Gorputz laguntza bere familia artean egingo da.

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalaria anônimoak: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Chucla Kardaberaz 48
Tfno: 943 551793
- Gauzez: Chucla Kardaberaz 48
Tfno: 943 551793

IRAGARKI MERKEAK

Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dut. Goizeko 08:00etatik 15:00etara. Deitu: 943 55 58 40 (Arratsaldeko 19:00etatik aurrera)

Emakume bat behar degu, etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Deitu: 646 07 93 43 - 943 21 68 98.



- Pelikularik berrienak (VHS eta DVD)

- Marrazki bizidunak, Zinekluba...

- Sandwich hotz eta beroak

- Goxoki eta litxarkeriak

Aukera

berezia Otsailaren 3 arte

- 10 Euroko kargarengatik 4 dohan
- 15ekoagatik 7 dohan
- 20koagatik 11 doha
- 30koagatik 20 dohan



Ordutegia

Astelehenetik igandera 11:30etatik 21:00etara

Zabaldu berria

ESKOLA KIROLA

ASTEBURUKO PARTIDUAK

Pelota	Taldeak	Non	Noiz	Futbolsala	Taldeak	Non	Noiz
Alebinak	Txirria-Bizate B	Andoain	B har16:00	Infantilak	Langile-Antigua Lubaria	Kirolegia	B har11:45
Infantilak	Elezako A-Langile B	Usurbil	B har16:00	Aleletismoa			
Infantilak	LanamendiaLangile	Donostia	B har18:00	Benjamín eta Alebinak	Sagastizábal	B har11:00	
Infantilak	Elezako M undakiz	Donostia	B har18:30	Boleibola			
Infantilak	Hemanianadazpe	Kirolegia	B har16:00	Alebinak	Elizako Andoaino k	Andoain	B har11:15
				Alebinak	Unnea-ZuhaitzGoma	Donostia	B har11:15